



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 5a

14. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru-lege proiektuak:**

—11-24/LEY-00001. 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua. Osoko zuzenketak (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-24/LEY-00001. 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua**

### **OSOKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikulua ezarritakoa betez, 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. Foru-lege proiektua 2024ko urtarrilaren 23ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **1. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztua, proiektua itzultzekoa.

Zioak: Edozein gobernuren aurrekontuek, politika fiskala obratzeko lanabes oinarrikoa diren aldetik, oreka desberdinei eusteko ahalegin bat gorpuztu behar dute. Batetik, beren hiru funtzioak betetzeko, zeinak baitira baliabide-esleitze efizientea, ekitatearen aldeko birbanaketa, eta ekonomiaren hazkunde nahiz egonkortasunerako aproposa izan den ingurune bat sortzea. Bestetik, epe labur, ertain eta luzeko helburu desberdinen artean beti sortu ohi diren ebatzi beharrei aurre egiteko. Oreka-premia horiei behar bezalako arreta eskaintzea da gobernu batek bere zerbitzuematearen jomuga izan behar diren pertsonen ongizate ekonomiko eta sozialari mesede egiteko modurik onena.

Ondikoz, ez da hori, inola ere, 2024ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuaren kasua. Hasiera txarreko aurrekontuak dira, atzerapenez iritsi baitira, hori justifikatzeko moduko salbuespenezko arrazoirik ez badago ere. Zergatia kalkulu politiko huts bat izan da, herritarren

eskaerekin zerikusi urria daukana. Izan ere, hiru hilabeteko atzerapen hori zor zaio gobernuak aurrekontu-prozesua EH Bildurekin dituen akordioaren arabera beste mugimendu politiko batzuekin uztartu behar izateari, alderdi hori botereko hiruko gobernuaren ezinbesteko kanpo-bazkidea izaki. Mugimendu horien artean egon da Iruñeko alkatearen aurkako zentsuramozioa eta PSNk sostengua ematea EH Bilduren Iruñeko Udalerako hautagaiari. Egungo atzerapena are kritikagarriagoa da, kontuan hartuta azken legegintzaldiko gobernu bera dela, zeinari, bere jarraitutasuna dela-eta, eskatu beharko bailitzaioke epe arruntak errespetatu ditzala, bere taktikazalekeriazko kalkuluak mozorrotzeko aitzakiarik bilatu gabe.

Lehen aipaturiko orekarik ez dagoela begi-bistakoa da aurrekontu hauek jomugatzat hartzen duten faktoreen: hedakortasunezko proiektua izatea. Aurreko legegintzaldian gertatu bezala, aurrekontu hauek zerga bitartezko diru-sarrerak areagotu nahari eusten diote, EH Bilduk legegintzaldi honetan presio fiskalak 3 puntuko gorakada izan dezan exijitu izanari erantzuteko. Baliabide gehiago bereganatzearen bidean sakontzen dute, beraz. Horretarako, presio fiskal handiago hori bere horretan bihurtzen dute helburu, noiz eta, asko jota, baliabide-kudeaketa efizienteko helburu argi batzuetara baldintzaturiko bitarteko gisa uler-tu beharko bailitzaiteke. Halatan, bihurtzeko egiten da aurrekontugintzaren logika osasungarria izan beharko litzatekeen zerbait, zeina baita zergazko neurrien eta gastu-programen konbinazio efiziente bat.

Aurreko lau urteetan gertatuak ez bairik gabe frogatzen du ezen proposaturiko eredia urrun dagoela Nafarroak behar duen ereditik. Joan den legegintzaldian, María Chivite andrearen gobernuak Nafarroako Gobernuaren historian inoiz baino baliabide gehiago izan zituen eskueran, bere zerga-igoerei eta inflazioaren efektuari esker. Hala

eta guztiz ere, ez du zerbitzu publikoak hobetzeko gaitasunik izan. Eta, gainera, prozesuan zehar Nafarroak galdu egin ditu bai lehiakortasun fiskala, bai inbertsioa erakartzeko ahalmena.

Aurtengo aurrekontuetarako proiektuaren igoe-razalekeria itsuak xede bakartzat du gobernuaren kide eta sostengu direnen eskaera arras desberdina-asetzea, halatan gobernuaren iraupena bermatzeko. Epelaburkeriazko logika da, ahaztu egiten duena aurrekontuek etorkizunaren aldeko apustua egiteko jaidura ere izan behar dutela.

Ezen, berriro ere, aurrekontuek ahaztu egiten dituzte azpiegiturak, hain zuzen. Gure lurraldeak giltzarri diren azpiegituretan inbertsio-ahalegin handiagoa egin dadin behar du. Begi-bistan dago Nafarroako Gobernuak ez duela konpromisorik ezinbesteko deritzegun inbertsioekin; zehazkiago, Nafarroako Ubidearekin eta Abiadura Handiko Trenarekin. Borondate politikorik eza erabatekoa da, eta nabari da, esate baterako, Nafarroako Ubiderako inbertsio- eta epe-egutegirik ezean, eta Espainiako Gobernuarekin AHTrako epe eta inbertsioak azkartzeko akordio batera iritsi ez izanean.

Horren zergatia da Gobernuko alderdiek, beste eginbehar politiko batzuen eraginpean, bi proiektu horien garapena desazelerazio nabarmen batera eramanez. Berandutze horrek eragotzi egiten ditu Nafarroak etorkizunean ongizate handiagoa izan dezan ziurtatzeko beharrezkoak diren aurrepausoak.

Aurrekontuek, bestalde, ekoizpen-ekonomiaren garapenerako baldintzak ere ez dituzte babesten. Horrela, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuari ehuneko 14 pasatxo murrizten zaio aurrekontua. Gauza harrigarria, guztizko aurrekontuaren tamaina areagotu den une batean. Gainera, hori gertatzen ari da sektore publikoa jardun pribatuan gero eta gehiago ari denean eskua sartzen; esate baterako, dirulaguntza-ematea lehiakortasunarekin zerikusi urria duten irizpideetara baldintzatuz. Dinamika gaiztoa da hori, enpresarik lehiakorrenak azkenean dirulaguntzei uko egitera bultzatuta ditzakeena, halako moldez non Nafarroako administrazio publikoak azken batean diruz lagunduko baitie lehiakortasunik eta bideragarritasunik apaleneko enpresei bakarrik. Hori ez da, inondik ere, enpresa-ehundura produktiboa, lehiakorra eta aberastasun gehiago sortzeko gaitasunduna sustatzeko modu egokia. Aitzitik, baliabide publikoen kudeaketa inefiziente eta kaltegarriak errezeta ziurra da. Era berean, ez dirudi formularik onena denik Europako funtsak ekoizpen-arloaren

erresilientzia eta eraldaketa handiago baterantz bideratzeko.

Laburbilduz, gehienbat baliabide-banaketa makurturiko aurrekontuak ditugu hauek, gero eta kohesio ahulagoz elkar hartuta dauden holako eta halako gobernu-kideen lehentasun-eskaerei erantzutekoak, noiz eta haien artean tentsioak gorakadan baitaude, EH Bilduren protagonismoa handitu ahala. Protagonismoa handitu, hain zuzen, Nafarroako Gobernuak indar politiko horrekin sinaturiko akordio baten poderioz. Aurrekontu-akordio txar bat, nafarrei ongizate gehiagorik eman ez eta Nafarroaren lehiakortasuna ere berreskuratzen ez duena. Alderantziz baizik: bi ardatz horien higadura areagotuko duen akordio bat da, lehentasuna ematen baitio zatiketazko politikei eskainitako agenda politiko bati.

Hori guztia dela-eta, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak osoko zuzenketa hau aurkezten dio 2024ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Lege proiektuari.

## 2. ZUZENKETA

### VOX NAFARROA

#### FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa: 2024. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua itzultzea

Zioak: 2024. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek fikzio- eta irrealitate-ezaugarriak dituzte, eta guztiz falta dute nafar gizarteak bizi duen errealitatearekiko lotura. Urte osoan munta handienekotzat jotzen den aurrekontu-legea ez litzateke egin beharko berandu eta gizarte-eragile guztien nahiz Parlamentu honetako gainerako ordezkarien parte-hartzerik gabe; batez ere, hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspenak nabarmenki urrun daudenean errealitatearekiko eta gizarte-premietatik.

Espainiaren egoera eta, beraz, Nafarroarena, urgentziarik handienekoa da. Ez bakarrik politikaren alorrean, baizik eta ekonomiaren eta gizartearen ere, familia, enpresa eta langile guztientzat. Espainian, produktibitatea ez da hazten ari, eta gobernu desberdinek belaunaldi hau eta hurrengoak zorpetu egiten dituzten bitartean, nafar familia asko beren aurrekontuko xentimo bakoitza zaindu beharrean aurkitzen dira hilabete-bukaerara iritsi ahal izateko, hala Espainiako Gobernuaren nola gobernu erregionalaren zerga-politikaren ondoriozko itomenak jota.

Erreka-jotze ekonomikoari gehitzen zaizkio espainiarrak jasan behar izaten ari diren politika negargarriak, elite globalistek 2030 Agendaren itzalpean ezarriak, zeinen eskutik nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorearen suntsipena, industria-sektorearen desegintza eta espainiar familien txirotzea suertatzen ari baitzaizkigu, erosahalmena gero eta maldan beherago eta zerbitzu publikoak okerrerako bidean doazkigula.

Proiektuak berak aitortzen duen bezala, aurrekontu hauek prestatu dira testuingurua delarik Nafarroarentzat batere baikorrak ez diren aurreikuspen ekonomikoena eta industria-sektoreari buruz nabarmendu beharreko beherakadarena. Gutxiagotze horrek hazkundeari dinamismoa kendu dio 2023an zehar, eta, zirkunstantzia horiek oinarri harturik, aurreikusi da BPGak 2024an gorakada zertxobait txikiagoa izanen duela aurreko urtekoa baino, eta enplegu-sorkuntza desazeleratuko dela, ekonomia nazionalarentzat landu diren aurreikuspenen ildotik, inflazio oso handiarekin eta interes-tasen igoyerarekin.

Axolokoa da ohartaraztea ezen 2023ko uztailetik irailera bitartean familien kontsumoa apaldu egin dela, segur aski perspektiba ilunago eta zalantzasuagoen eraginpean, bai eta gure erregioan dagoen ziurgabetasun politikoaren eraginpean ere.

Gastu pribatuaren gaur egungo zantzu batzuek, hala nola txikizkako komertzio salmentek –prezio konstanteetan–, irailetik aurrerako desazelerazio bat erakusten dute, Nafarroako Hiruhileroko Kontabilitatearen proiektioekin bat etorriarik. Beste adierazle batzuek, hala nola automobil-matrikulazioenak, zeinak halaber har baitaitezke etxeetako kontsumoaren adierazle bezala, erakusten dute beherakada bat izan dela bigarren sei hilekoan. Antzera, kontsumitzaileen konfiantza geldiune batera iritsi da urtearen bigarren erdian, aurreikuspen ekonomikoek okerrera egin izanaren ondorioz.

Tamalez, Biztanleria Aktiboaren Inkestako estatistikan ikusten da nola, gaur den egunean, industria-sektore honetako langile-kopuruak 250.000 langileko beherakada izan duen 2008. urteaz geroztik. 2008ko laugarren hiruhilekoan 3,076 milioi pertsona zeuden, eta 2023ko laugarren hiruhilekoan, berriz, 2,829 milioi. Era berean, 2023ko lehen hamaika hilabeteetan, Nafarroaren esportazioek % 4 egin zuten behera, eta inportazioek, % 3,2, aurreko urteko epe berarekin alderatuta.

Horregatik, zalantzarik gabe esan dezakegu gastu politiko ezeraginkorren ondoriozko aurre-

kontuak direla, gure erregioaren zorra areagotuko dutenak eta txirotasunera eramanez gaituztenak, eta bere apeta ideologikoekin nafarrak gero eta gehiago itotzen dituen gobernu batek eginak direnak.

Aurrekontuak gobernu-organigrama neurrigabe bat erakusten du, goi-kargudunei ordaintzeko kopuru arras handia darabilena, zeina nafar zergadunari ordainarazitako zerga altuagoetatik heltzen baita. Nafarrek gero eta zerga-presio handiagoa pairatzen dute. Horren erakusgarri, seme-alabarik gabeko zergadun batek 231 euro gehiago ordaindu beharko ditu Euskal Autonomia Erkidegoan pagatuko lukeena baino, edo 391 euro gehiago, alderaketa Madrilekin eginez gero, Ekonomisten Kontseiluaren kalkuluen arabera. Horrenbestez, bipil aldarrika dezakegu Nafarroa etsaitasunezko zergalurrealdea zaiela 16.000 eurotik 70.000rako tartean aurkitzen diren zergaduneri. 20.000 eta 70.000 euroko soldadak dira Espainia osoan PFEZik handiena ordaintzen dutenak.

Egokiera sozial batean gaude non gobernu honek, Naziokoak bezalaxe, alorraren araberako diru-xahuketari eta bereziki gastu politiko eta ideologikoari eskainitako aurrekontu bat gauzatzen baitu. Halatan, ugariak dira oso, nafarrei itxaropen eta aurrerabidezko ikusmira bat izatea eragozten dieten problemak.

Lasai ederrean errotu zaigu delitugintza, legez kontrako okupazioaren eta immigrazioaren ondorioz, zeinak, aurrekontu hauei antzematen zaien bezalaxe, politikariei ez baitzaizkie interesekoak, horiek nafarren benetako problemei bizkar emanez bizi baitira, eta herri nahiz eskualdeak jadanik seguruak ez diren toki bihurtzen baitituzte.

Horrek behartzen du aurrekontuak epe ertaineko plangintzaz egitera, finantza publikoen iraunkortasunari eustearren, betiere gizarte-oreka mantenduz eta Espainiako Konstituzio printzipio gidariak oso gogoan izanez, zeinen arabera botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen baitute, eta Administrazioak aurrerabide sozial eta ekonomikorako baldintza aproposak eskaini behar baititu, errenta erregionala ekitatez banaturik, enplegu betera bideratuta dauden egonkortasun ekonomikoko politikak xede harturik betiere.

Aurrekontuen lege-proiektu honetatik, alabaina, deduzitzen da Nafarroako Gobernuaren helburuen artean ez dagoela sektore publikoa eraberritu eta hori zehaztasunaren nahiz aurrekontu-orekaren premiei gehiago doitzea, baizik eta beren horretan mantentzea hainbat eta hainbat erakunde, kontseilu eta askotariko entitate, ezertxotan

ere ez dutenak gure bizi-kalitatea hobetzen, baizik eta politikarientzako ongizate-estatu bat elikatzen dutenak, guztion diruaz ordaindua.

Hitz batean, administrazio honek aurrekontu-egonkortasunaren printzipiora behar du aurrekontua egokitu. Beharrezkoa eta ezinbestekoa da Nafarroako Foru Komunitateak inbertsio industriaren egituraketarako ardatz izate aldera lan egin dezan, hori garapen ekonomikoaren zutabe den aldetik. Daukagun aurrekontua, baina, gastu eta xahuketa politikoari eskainita dago, zeinek ez baitute familien ekonomia indartzeko helbururik.

Alde horretatik, aurrekontuari buruz aipa daiteke 2024 honetan % 8,34 egiten duela gora gastu sozialak, zeinak gastu-aurrekontu osoaren % 54,40 egiten baitu. Hau da: 3.457,45 milioi euro, egiazki eta parterik handienez gastu ideologikora, baina ez sozialera, bideratuak.

Horren adibide argia dugu Nafarroako Berdintasunerako Institutua, 6.569.284 euroko programa bat jasotzen duena, edo migratzaileei harrera eta lagun egiteko proiekturako 3.575.552 euroak, edo kulturarteko elkarbizitza hobetzeko programetarako 1.488.687 euroak, eta politika ideologikoetarako aurrekontu-partida transbertsal guztiak, ez diotenak inolako ekarpenik egiten nafarren ongizateari.

Halako aurrekontu bat non Nafarroako Berdintasunerako Institutuan, migrazio-politiketan eta Euskararen Institutuan egin beharreko gastua 24 milioi euro baino gehiagokoa baita, aurrekontu bat non merkataritza eta kontsumoaren garapenari 4 milioi exkax eskaintzen baitaizkio, ezin da aurrekontu sozialtzat jo, ez eta nafarrentzat mesedegarri ere.

Nafarroako langabezia-zenbakiei erreparaturaz, ikusten dugu langabeziaren portzentajeak populazio aktiboaren % 9,3 egiten duela, noiz eta, inflazioa tarteko, nafar familiek egunez egun gero eta zailtasun handiagoak baituzte hilabete-bukaerara iristeko.

Eta enpleguaren sustapena edo industria eta energia bezain partida muntadunetan, 2024 honetan %10,19 % eta % 31,98 % gutxiago inbertituko da, hurrenez hurren. Enpleguaren sustapenak lehentasuna behar du izan Nafarroarentzat, eta horretara % 1,06 bideratzea ez da nahikoa.

Nafarroako aurrekontu proiektuaren testuak berak dioenez, "Balio Agregatu Gordin industrialak batez beste % 0,8ko gorakada izan du 2023ko hirugarren hiruhilekora bitartean; datu hau askoz apalagoa da sektore honek izan ohi duena baino,

eta industriak egun pairatzen duen kolokazko egoera agertzen du".

Gure erregioan industriak ziurgabetasun-egoera bat bizi du, eta horregatik, ahalegin guztiak egin behar ditugu gure ekonomia mugitu eta enplegua sortzen duten sektoreei babesa emanen dien aurrekontu bat lortzeko.

"Enplegu-sorkuntzaren erritmoa, gainera, moteltzen joan da urtean zehar, eta 2023a urtearteko % 0,6ko gorakadarekin abiatzen bazen ere, hirugarren hiruhilekoan tasa hori % 0,3raino jaitsi da. Hain zuzen, industria-jarduerak gaur egun lanpostu gutxiago ditu pandemia aurretik baino". Datu hori beharko litzateke izan gure politiken oinarri guztien ardatz, zeharo alde batera utzita gastu ideologikoaren alferrikakotasun eta suntsigarritasun oro.

Ekoizpen industrialaren indizea % 3,3 jaitsi da urrira bitartean, eta bereziki nabarmena izan da energia-adarraren beherakada (% -15,1). Tarteko ondasunen ekoizpenak % 5,7ko beherakada izan du aldi horretan; eta kontsumo-ondasunenak, % 0,4koa.

Nafarroak enpresari industrialen konfiantza galdu du, hala sektorean egin den inbertsio urriagatik eta eman zaion laguntza eskasagatik nola konplexutasun eta desegonkortasun politikoagatik, garapen ekonomikoari ez baizik eta ongizate politiko hutsari begiratzen dioten akordio eta hitzarmen politikoak direla-eta. 2020az geroztik 2.100 enpresa baino gehiago desagertu dira, eta industriaren sektoreak suntsitze-bidean dirau, Nafarroako konpainien % 1,8 galduta.

Espainiar herritarrek gobernu-erantzukizuna eman izan diguten erregioetan, Voxek erabaki du sindikatuentzako dirulaguntzetara bideraturiko gastua bertan behera uztea, ekimen zabalago baten ildotik, zeinak aldeztan baitu alderdi politiko eta sindikatuentzako dirulaguntza eta laguntza guztiak bertan behera uztea. Neurri hori Espainiako zenbait erregio eta udalerritan tinko gauzatua izaten ari da, hala nola Gaztela eta Leonen, Murtzian edo Valentzian.

Aurrekontuzko ahalegin hauek jomugatzat izan beharko lukete lan-merkatuaren baldintzatzaileak eta horri buruzko politikak alderantzikatzea, gu Europa mailan langabezia-ilaran jartzea besterik ez baitute lortzen.

Bestalde, aurrekontu hauek Nafarroan nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorea ahaztu egin dute, noiz eta sektore horretan ekoizpen-kostuek gorakada bortitza izan baitute, halako moldez non inflazioaren presioa familia guztientzako oina-

rrizko produktuek nozitzen baitute gero. Egiazki axola duena da egunero jaten ematen digun sektore bat babestea, eta hari lehiakorrago izaten laguntzea. 2023an zehar gehien garestitu ziren produktuak elikagaiak ditugu, inflazioa % 12,2 izanda. Ez dirudi presio hori apaltze bidean doanik.

Gure erregioa 2030 Agendako politikek doktrinatzeko lanabes bezala jo dute, nazioz gaindiko zenbait entitatek, legeria eraldatzeko ahalmena dutenak, inposaturik, itxura batean gomendio hutsak baizik ez direnen bitartez. 2030 Agendaren xedea ez da nafarrak babestea. Horren orde, esan behar da nazio-subiranotasuna eta nazioen ekonomia eta ehundura sozioekonomiko eta kulturala ahultzeko plangintza xehe baten emaitza dela.

Ez dira nafar familiek, enpresek eta gazteek behar dituzten aurrekontuak. Aitzitik, kontu hauek propagandarakoak dira, María Chivite lehendakariaren gobernu erregionalaren alde, zeinak bere horretan baitirau zorpetze ekonomikoaren bidetik eta beren lan, kontsumo eta ondarearekin egitura gero eta neurrigabeago, abusuzkoago eta inefizienteago bat eusten laguntzen duten nafar onestak mespretxatzearen bidetik.

Azken batean, aurrekontuetarako lege-proiektu hau oso hedakorra da gastuan, eta helburu du "aurrerapausoak ematen segitzea, Ongizatearen Estatuari loturiko funtsezko zerbitzu eta prestazioen blindaketa lortzerantz". Baina ez nafarrentzat, baizik eta, aipatu dugun bezala, politikarientzat, eta hala Nafarroan nola gobernu nazionalen besaulkiak atxikitze aldera alderdi politiko jakin batzuekin eginiko ezkutuko akordioen mesedetan. Aurrekontu honek sakondu egiten du hondamenean, zarrastelkerian, arduragabekeria eta Nafarroako familien txirotzan.

Aurrekontu honek ez du ezertan laguntzen nafarrek gaur egun dituzten problemak konpon-tzen, ez eta erregioko familiek etorkizunean aurre egin behar izanen dieten problemei soluzioa ematen ere. Nafarroak ez dauka azpiegitarik halako izena merezi duenik, ez dago familia bat sortzeko aukerarik, Chiviteren gobernuak abiarazitako desindustrializazioaren ondorioak pairatzen ditu, eta landa-inguruneko bizitza estigmatizatuta dago.

Eta arrazoi horiek guztiak berez nahikoak dira lege-proiektua itzultzeko. Garrantzitsu deritzogu osoko zuzenketa bat aurkezteari, ezen nafarrek berriro ere konfiskatzeko aurrekontu batzuk jasan beharko dituzte, ez dituztenak aintzat hartzen ez zuhurtziaren, ez konpromisoaren, ez arduraren printzipioak.

Aurrekontu eta politika ekonomiko honen aurka, Nafarroako Vox parlamentari-elkarteak eredu-aldaketa erradikala proposatzen du, modua emanen duena aurrekontuan jasotako jarduera bakoitza identifikatu, ebaluatu eta justifikatzeko, aintzat harturik jarduera bakoitza betetzeari begira unitate bakoitzean beharrezkoak diren gutxieneko kostu-, baliabide- eta ahalegin-mailak. Halatan, programa zaharkituak edo produktibitate apaleko partidak ekidinen dira, exekuzioa errazagoa eta arinagoa izanen da, eta diruzaintzako gerakina kontrolatuago egonen da.

Horregatik guztiagatik aurkezten dio osoko zuzenketa hau Nafarroako Parlamentuko Vox parlamentari-elkarteak 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko lege-proiektuari, eta eskatzen du gobernu erregionalari itzul dakion, harengandikoa baita ekimena.

### 3. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa: Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua itzultzea

Legegintzaldi bati hasiera ematen dieten aurrekontuek Gobernuaren lehentasunak eta asmoak erakusten dituzte, ukitzen dituen gaietan.

Asmo handikoak izan beharko lukete; alabaina, aurrekontu hauetan dokumentu kontinuitate bat ikusten dugu, eta, beraz, gaur egun ditugun arrakaluetan eta hutsuneetan sakontzen jarraituko dute.

Nafarroaren egoerak erantzun politiko ausart eta konprometitua eskatzen du, bereziki arlo sozial, ekonomiko eta hezkuntzakoan.

Zalantzarik gabe, Osasungintza da Ongizate Estatuaren funtsezko ardatzetako bat. Hala ere, bere buruari aurrerakoi deitzen dion gobernu honek mugara eraman du Nafarroako osasungintzaren egoera, eta ez dugu uste aurrekontu hauek jada sostengaezin bihurtzen ari den egoera konponduko dutenik.

Oinarriko Osasun Laguntzak Nafarroarentzat onartezinak diren itxaron-zerrendak ditu. Gure komunitatearen errenta-maila batez bestekoa baino handiagoa da, eta Espainiako zerga-presiorik altuena dugu. Gutxieneko elkarrekikotasun bat egon beharko luke ordaintzen ditugun zerga altuen eta jasotzen ditugun zerbitzu publikoen artean, baina, tamalez, ez da horrela.

Argudiatu liteke arazoa aurrekontuari dagokio-lan, baina Kontuen Ganberak horri buruz hitz egin

du jada, eta argi utzi du Nafarroako osasungintzak ez duela finantziario arazo bat, baizik eta kudeaketakoa.

Pertsonal sanitarioak eskatzen duenarekin bat, antolaketa neurriak behar dira, ausartak eta zentzuzkoak. Izan ere, baliabideak mugatuak eta beharrak mugagabeak dira; hori dela-eta, garrantzitsua da aurrekontua efizientziaz eta eraginkortasunez exekutatzea.

Nafarroako osasungintzak egoera nahasia bizi du: Pertsonal sanitarioaren grebak, espezialisten guardiak bete gabe Lizarra eta Tuterako ospitaleetan, Oinarrizko Osasun Laguntza gainezka, pediatrarik ez osasun-etxeetan, sekula ikusi gabeko itxaron-zerrendak. Eta Nafarroako Gobernuak oraindik ere ezin du egoera hori konpondu, ezta aurreko ekitaldietan beraiek hainbeste kritikatzeko zituzten itunetan egindako gastu handiarekin ere.

Hezkuntza, tamalez, ez dago egoera hobean. PISA txostenaren azken emaitzek Nafarroako hezkuntzaren errealtate kezagarria agerian utzi dute. Baliabideak eduki arren, hezkuntza-kalitateak ez dakar berekin gure gazteendako etorkizun esperantzagarri bat. Baitaezpadakoa da hutsune horiek jorratzea eta bikaintasun akademikoa sustatzen duten politikak diseinatzea.

Hamarkada batean (2022a eta 2012a alderatuta) puntuazioan dauden desberdintasunak konparatzean, ikus dezakegu Nafarroa Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen eta Espainiaren batez bestekoa baino gehiago jaitsi dela. Hain zuzen, zientzietan puntuazio gehien galdu duen bigarren autonomia-erkidegoa da, lehenengoa matematiketan, eta hirugarrena irakurmenean.

Nafarroako Gobernuak errepikatzen dituen mantren kontra, komunitatearen errealtate sozioekonomikoak ere ez du islatzen harrokeriaz agertzen duten hazkunde hori. Pobrezia eta babesgabetasuna handitu dira, eta 2008tik Nafarroa da pobrezia eta gizarte-bazterketaren tasaren igoerarik handiena izan duen autonomia-erkidegoa, Nafarroako biztanleen % 14,5 baitaude egoera horretan.

2022an, Nafarroan igo egin zen hilabete bukaerara iristeko zailtasunak zituzten pertsonen kopurua. Datuen arabera, 2022an 260.366 pertsonak nolabaiteko zailtasunen bat izan zuten hilabete bukaerara iristeko; hau da, biztanleen % 39,5ek. Aurreko urteko datuekin konparatuz gero, 31.503 herritar gehiagok egin behar izan zioten aurre egoera horri.

Eta, bitartean, ikusten ari gara Nafarroako Gobernuak ez dela behar beste arduratzen ari pertsona horiek kalitatezko lana lortu eta Nafarroan etorkizuna eta egonkortasuna izan dezaten.

Enpleguaren arloan lehiakortasuna galtzen jarraitzen dugu. Langabezia-tasa txikiena zuen autonomia-erkidegoa izatetik seigarrena izatera pasa da Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Cantabriaren, Aragoiren, Kataluniaren eta Galiziaren atzetik.

Aitzitik, ikus dezakegu Euskarabidearen aurrekontua % 5,4 handitu dela, eta % 12,64 komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko partida. Beste hazkunde handia helduei euskara irakasteko laguntzetan izan da, 2.500.000 euro eman baitzaie. Jakinda euskararen kale-erabilera helduen artean ez dela % 10era iristen, eta urtez urte txikiagoa dela.

Partidetan izandako horrelako igoerekin, uste dugu aurrekontu horiek nafarren benetako premietatik gero eta urrunago daudela.

Gainera, enpresa publikoen eta haien finantzaketaren arrazoirik gabeko handitzearen aurrean gaude. Eta horren interes eta helburu bakarra da Gobernuan dauden alderdietako kideei modu interesatuan lanpostu bat ematea. Izan ere, enpresa horiek, entitate publikoen helburua bete ordez, kostuaren edo merkatuaren gabezia dela-eta merkatuak jorratu ezin duen behar bat ordeztu beharrean, ikus dezakegu horietako batzuek lehia desleiala egiten dietela gure autonomia-erkidegoko enpresei.

Aldi berean, Nafarroarentzat giltzarri diren azpiegiturez bezainbatean dagoen anbizio eta finantzaketa faltak agerian uzten du Gobernuak gure lurraldearen garapenarekin duen konpromiso eskasa.

Aurrekontu horiek erabat ahazten dute Nafarroako Erriberaren garapena, eremu horretarako giltzarri den obra batek ez duelako behar adinako aurrekonturik. Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteari dagokionez, Canasaren finantzaketak -% 40an Nafarroako Gobernuaren menpeko- ezer gutxi egin ahal izanen du Gobernuak azpiegitura horretarako bideratu dituen 3 milioi euroekin.

Antzeko zerbait gertatzen da Prestazio Handiko Trenarekin, zeina ezinbesteko azpiegitura baita Nafarroa Europara sartzeko ate bihurtzeko.

Egoera horren aurrean, gure ustez, aurrekontuak industria bultzatzera, gizarte babestera, enplegua sortzea sustatzera eta Nafarroako azpiegiturak indartzera bideratu behar dira. Eta

alde batera utzi behar dituzte interes alderdikoiak, politiken politizazioa eta boterea banatzea aurrekontuen eta finantzaketa publikoaren bidez.

Nafarroako aurrekontuak ikuspegi efiziente batetik landuz gero, enplegua sortzea eta ekonomia suspertzea lortuko dugu. Eta horrela autonomia-erkidego lehiakorragoa izanen gara, Espainiako gainerako lurraldeekin lotua.

Finantzaketaren arloari dagokionez, gure ustez, Nafarroak zerga-presio handia izateak enpresak sortzea eta lurraldean atxikitzea oztopatzen du eta deslokalizazioa eragiten du. Horrek eragina du, halaber, gure gazteen etorkizunean; izan ere, prestakuntza hemen jasotzen dute, baina bizitza pertsonala eta profesionala garatzeko erakargarriagoak diren beste leku batzuetara joaten dira.

Enpresa-ingurune oparoa sustatzeko, funtsezkoa da oinarrizko zerbitzu publikoak finantzatzeko behar den diru-bilketa ahalbidetuko duen oreka aurkitzea, eta, aldi berean, pizgarriak ematea enpresen hazkunderako eta horiek lurraldean atxikitzeko.

Horrenbestez, erabat aurka gaude Alderdi Sozialistak eta bere bazkideek Nafarroako herritarrei eta enplegua sortzen dutenei ezartzen dieten zerga-presioarekin. Gure ustez, gehiegizko zerga-politika batek hazkunde ekonomikoa oztopatu eta inbertsioa motelarazten du, eta horiek garapenerako elementu erabakigarriak dira.

Fundación para el Avance de la Libertad eta Tax Foundation fundazioek 2022an egindako lehiakortasun fiskalaren indize autonomikoaren azken datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitatea 19tik 11. postuan dago. Aurten ere kapitulu horretan buruan jarraitzen duten eskualdeetatik oso urrun, hala nola Madrildik eta EAeko hiru probintzietatik. 2017tik, Nafarroa nabarmendu egiten da zerga-lehiakortasunean izan duen atzerakada itzelarengatik. Gauza bera gertatzen da PFEZarekin: gutxieneko pertsonalak eta familiarrak, hiru euskal aldundiekin alderatuta, % 50 azpitik daude, eta araubide komuneko autonomia-erkidegoen gutxienekoen azpitik.

Gaur egun, Europa osoan PFEZaren zortzigarren zerga-tasarik altuena du Nafarroak, Suediakoa baino 0,3 puntu txikiagoa soilik.

Arrazoi horiengatik ez gatoz bat ezkerraren filosofiarekin, zeinak esaten baitu diru-bilketa handiagoarekin zerbitzu hobekak daudela. Finantzaketa ona behar da, baina are garrantzitsuagoa da funtsen kudeaketa ona egitea.

Gobernua Nafarroako gizartea erasotzen eta desabantailan uzten ari da. Autonomia-erkidego guztien artean Nafarroaren PFEZa lehiakortasunean azkena izatearen arrazoietako bat da gobernu-egitura faraoniko bati aurre egin behar diola, behar baino departamentu gehiago eta bikoiztasunak baitaude, Gobernuko alderdi guztien artean boterea banatzeko.

Jabetuta gaude egungo exekutiboa ez dela gai izanen Nafarroak behar dituen aurrekontuak aurkezteko, nazionalisten, populisten eta ezker abertzalearen mende baitago erabat.

Alderdi horietako batzuek ez dute sinesten gure lurraldeak garatzeko behar dituen azpiegituretan, inposizioa defendatzen dute politika egiteko modu gisa, eta haien ustez, finantzaketa-bide bakarra zerga-presio handia izatea da.

Laburbilduz, aurkeztu diren aurrekontuek ez diete erantzuten Nafarroako Foru Komunitatearen beharrei. Gure ustez, ez daude efizientziaren, garrantasunaren eta kontu-ematearen printzipioetan oinarrituta. Ez dute neurririk jartzen mahai gainean, administrazio publikoa optimizatzeko eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzen direla bermatzeko, herritar guztien alde. Eta ez dute konpromiso berriturik hezkuntza-bikaintasuna, garapen ekonomiko jasangarria eta zerga-kudeaketa zuhurra lortze aldera.

Horrengatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak osoko zuzenketa bat aurkeztu dio 2024ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Lege proiektuari.